

## PRENTSA OHARRA

### "MARGÜELLO KASUA" IKERTZEN DUEN BATZORDEA BERRIZ LOTUKO ZAIO LANARI HILAREN 15EAN, MARTÍNEZ CHURIAQUEREN AGERRALDIAREKIN

Margüello kasua, Osakidetzaren kudeaketa politikoari buruzkoa, ikertzen duen batzordea berriz lotuko zaio lanari, hilaren 15ean, 10:00etatik aurrera. Bilkura horretan, José Ignacio Martínez Churriaque Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariaren agerraldia izango da.

Ikerketa-batzordearen lehendakariak, Laura Garrido PPko legebiltzarkideak, azaldu duenez, bilkura-aldi berria hasi eta bilerekin eta agerraldiekin jarraituko duela batzordeak, Euskadiko osasun publikoko kontratazioetan ustez izan diren irregulartasunak argitze aldera.

Martínez Churriaque Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariak egingo du lehen agerraldia, datorren asteazkenean. Fiskalizazio-organook egindako txostena joan den uztailen igorri zitzaion Legebiltzarrari, batzordeak eskatuta.

Laura Garridok nabarmendu du "Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak eta haren lehendakariaren agerraldiak duten garrantzia bai batzorde parlamentarioaren ondorioetarako bai irizpena egiteko".



## NOTA DE PRENSA

### LA COMISIÓN QUE INVESTIGA EL 'CASO MARGÜELLO' REANUDA SU TRABAJO EL DÍA 15 CON LA COMPARECENCIA DE MARTÍNEZ CHURIAQUE

La Comisión de investigación del caso Margüello, que afecta a la gestión política de Osakidetza, reanudará sus trabajos la próxima semana, el día 15, a partir de las 10.00 horas con la comparecencia de José Ignacio Martínez Churiaque, presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

La presidenta de la comisión de investigación, la parlamentaria del PP Laura Garrido, explica que con la apertura del nuevo curso, la comisión retoma las reuniones y comparecencias encaminadas a esclarecer supuestas irregularidades en contratos realizados en la Sanidad Pública Vasca.

Martínez Churiaque, presidente del Tribunal vasco de Cuentas, abrirá el próximo miércoles la nueva ronda de comparecencias. El informe elaborado por el órgano fiscalizador fue enviado al Parlamento a petición de la Comisión el pasado mes de julio.

Laura Garrido destaca la "relevancia que tanto el informe del TVCP como la comparecencia de su presidente tienen para las conclusiones de la comisión parlamentaria y para la elaboración del dictamen".

